


literatura vasca. Por último, y habiendo espacio para los Baleztena, no habría estado de más el ofrecer un espacio a las figuras de los periodistas Miguel Ángel Astitz, urgazle de Euskaltzaindia y coautor con Dolores Baleztena de las *Romerías Navarras*, y de Agustín Irigaray, periodista carlista de *El Pensamiento Navarro*, escritor en euskara y castellano, cuñado de Larreko y miembro por tanto del clan Irigaray de Burguete, cuyo último vástago oficia de padrino de este libro de López Antón.

Pudiera pensar el lector que el autor de la reseña se aprovecha de este espacio para alejándose del tema en cuestión dar rienda suelta a su engreída vacuidad. Nada más lejos de la realidad. No pretendo restar valor alguno al libro de López Antón, y sin duda la falta de los autores apuntados no cambiará demasiado las conclusiones a las que llega el historiador pamplonés en el análisis de la segunda parte. Ya lo apunta el autor en el colofón cuando afirma que “algunos lectores relacionados sentimentalmente con el carlismo o el nacionalismo vasco pueden quedar gratamente sorprendidos o decepcionados por algunas de las cuestiones que se han escrito y que les pueden afectar sentimental, ideológica o familiarmente”. Es por ello que en el mismo sitio advierte que en pos de sus objetivos prefiere obviar la bibliografía posterior a 1939, a la que considera demasiado contaminada de las generalizaciones propias del nacionalismo autárquico que imperan en la posguerra. Y esta, aunque para algunos seguramente discutible, pero sin duda valiente y coherente decisión, ha de tener algún que otro efecto *colateral*. De esta manera debemos pues denominar la falta de algunos de los escritores citados, precio asequible, pero precio al fin y al cabo, por ejercer de investigador vasco que trata de acercarse a la verdad, como así mismo quiere verse López Antón. Y esto que puede parecer tener algún viso de narcisista vanidad, por estos lares tristemente tiene mucho de cierto. Es por ello que puntualizaciones que en principio pudieran creerse innecesarias como la de “a los historiadores que estudiamos el carlismo en algún momento de nuestra vida o se nos considera procarlistas o anticarlistas, y esa no es la realidad, el objetivo es estudiar la materia con ecuanimidad”, para López Antón todavía se hace necesario el formularla, y cuando menos, es una buena muestra de principios que avala aún más un libro altamente recomendable.

Joxemiel Bidador



**MAJUELO, Emilio**

**LAB sindikatuaren historia. Langile Abertzaleen Batzardeak (1975-2000)**

Tafalla : Txalaparta, 2000. - 219 orld. : ir. ; 24 cm. - ISBN 84-8136-190-9

*“Honakoa, sindikatu bitxi bati buruzko liburu xume bat da. Bitxia, bizi dugun garaierako behintzat. Erregimen frankista azkenetan zegoela sortu eta, harrezkeroztik, indarrean dagoen sistema ekonomiko eta politiko baten aurka borroka eta gaitzespen*

*jarrerari eutsi dion erakunde bati buruzkoa, alegia*” (7 or.). Horrela hasi du LAB sindikatuaren inguruko lan hau Emilio Majuelo historialari eta Nafarroako Unibertsitate Publikoko irakasleak, *“borrokarako eta aldaketa soziopolitikorako sortu zen langile-erakunde bati buruz idaztea, bati baino gehiagorik gai anakroniko eta adeitasun gutxikoa iruditu ahal izango zaio”* la jabeturik.

Izan ere, gaur ez dago modan langile mugimenduari buruz idaztea, zalantzarik ez. Erakunde sindikalek, hala ere, hor daude. *“Sindikalismoaren historia itzuli egingo da”*, diosku Emiliok, nahiz eta historialariok, beste behin, arlo honetan soziologo eta politologoek atzetik goazen. Azken batean, lan harremanen eta politika sozialaren funtzionamendu eta garapenaren eragile garrantzitsuak dira sindikatuak, indarrean dagoen legeriak ezagutzen dizkien ordezkapen, negoziazio eta kudeaketa gaitasunari esker.

Egilearen hitzetan, *“LABen historia hau, euskal sindikalismoaren historiari egindako ekarpen bat da. Beraz, funtsezkoa den galdera bati erantzuten saiatu da: Nola izan ahal zen LAB garatu, finkatu eta euskal langileriaren zati batek aintzakotzat hartzea, baldintza politiko eta ekonomiko orokorrak horrelako sindikalismoaren aurkako zirela zirudienan?”* (8 or.). Nola lortu du protagonismo hori?. Egileak berak erantzuten digu. Alde batetik, *“enplegua suntsitu edo berreskuratuko ez zuten birmoldaketa plan edo ugazaberiaren egitasmoetan parte ez hartzeko LABeko arduradunek izan dituzten erabaki sendoak”* sinbolizatu izana. Bestetik, *“sindikatuak militanten eguneroko lana”* (9 or.).

Liburua sei kapitulutan banatu da, zeinetan kronologikoki LABen bilakaera aztertzen den, nortzuei zuzenduta dagoela ahaztu gabe. Azken batean, beti ere irizpide historiko serioari eutsiz, dibulgazio lanaren aurrean gaude, hau da, interesa duen edonori zuzenduta, LABeko afiliatuei bereziki. Helburu horrekin sortu baitzen, hain zuzen, sindikatuaren 25. urteurrena zela eta. Atal bakoitza, helburu didaktiko horri helduz, azpiataletan dago antolatuta, argazki nahikorekin lagunduta. 25 urte horietan zehar kaleratutako afitxe batzuen bilduma ezezik, gaian sakontzeko oinarritzko bibliografia ere badugu lan honetan. Egileak erabilitako iturrien artean, *Egin* egunkaria izan da altxor nagusia. *Egin Irratiarekin* batera espainiar Justiziak 1998ko uztailaren 15ean itxiarazi zuen Ezker Abertzaleko egunkaria aztertzea ezinbesteko daukagu Euskal Herriko azken 20 urteotako historia ongi ezagutu nahi badugu, zalantzarik ez.

Garai bakoitza bere testuinguru politiko eta sozioekonomikoan oso ongi kokatuta, egundoko pena eman dit Txalaparta argitaletxeak berak egindako itzulpena landu ezin izana. Itzulpen literalegia izateak askotan ulergaitza egiten baitu testua eta, horretaz gain, batzuetan euskarazko testua ez baitator bat jatorrizkoarekin.

Bestaldetik, egileak berak uzten ditu agerian lanaren gabeziak edota hutsuneak: Alde batetik, sindikatuak duen izaera bikoitza horretan, soziolaborala eta soziopolitiko, lehenengoa atera da nagusi lan honetan. Amnistiaren aldeko borrokak, Soldaduzka edota Leitzarango autobidearen aurkakoeak, besteak beste, zein Nazio Askapenerako Mugimenduaren partaide izateagatik pairatutako errepresioak ez dute haien garrantziaren isla izan. Horiek guztiak landu gabe hanka motz gelditu da sindikatuaren sintesi hau. Bestetik, sindikatuaren egoera bere osotasunean aztertu beharra, hau da, *“bere barne bizitzari, bere funtzionamenduari, bere atal bakoitzean dagoen parte-hartzeari dagokienean”* (11 or.). Oraindik egundoko lana daukagu, beraz, Euskal Herriko langile mugimendua ikertzen ari garenok.

Egilearen Sarreraz gain, LABeko sortzaileetako bat eta ezker abertzaleko militante historikoa den Jon Idigorasek eta sindikatuaren idazkari nagusia den Rafa Diez Usabigak idatzitako **Hitzaurreak** ditu liburuak. Lehenengoak orain dela 25 urte sindikatua sortu zen garaiera bagaramatza, bigarrenak militante kontzeptuaren goraipamena egiten digu.

Lehenengo atalean, “**Euskal historia garaikidearen bi euskarri**”, 1880-1975 bitarteko urteak aztertzen ditu Emilio Majuelok sarrera gisa. Bi azpiatal bereizten ditu. Alde batetik, 1880tik 1956ra. 1880az geroztik sortutako euskal industria-langileria eta euskal nazionalismoaren eskutik euskal politika autonomo baten formulazioaren azterketarekin ematen dio hasiera lanari. Euskal Herriko XX. mendeko lehenengo hereneko elementu funtsezkoetako bi izan ziren, dudarik ez, bi elementu horiek. Beranduago, II. Errepublikaren aldarrikapenak, dio egileak, langileriaren eta euskal abertzaleen eskaerak bideratzeko irekitako aukera bertan behera utzi zuen era tragiko batean Francok zuzendutako altxamendu militarrek.

1956-1975 azpiatalean Frankismoaren deslegitimazio-prozesua aztertzen da. Zinez, 60ko hamarkadan arestian aipatutako bi elementu horiek “*Francoren aurkako borrokan indartsu eta dinamikoenak eta erregimenaren deslegitimazio lanean eragin-korrenak ziren bi elementu gisa gauzatu ziren. Langile-gatazka eta aldarrikapen abertzalea, Euskal Herriko eguneroko bizitzan gogoan egon ziren bi gai izan ziren Francoren heriotza arte*” (28 or.). CCOO eta Euskadi Ta Askatasuna izan ziren bi eragile nagusiak urte horietan.

Bigarren atalean, “**Langile Abertzaleen Batzordeen jatorria**”, frankismoaren amaierako egoera sozioekonomiko eta politikoaren sintesi ezinhobea lortu du egileak. Langile mugimenduak erradikalizazio-prozesua ezagutu arren, argi utzi nahi izan du Emilio Majuelok aurreiraultzako prozesurik ez zegoela Hego Euskal Herrian.

Hego Euskal Herriko langile masa-erakundeen dinamika abertzale eza orekatzeko beharrari erantzun zion LABen sorrerak. Klase borroka eta nazio borroka uztartzean zegoen gakoa.

LABek hasiera batean Euskal Sindikatu Bateratua sortzeko asmoa bazuen ere (“*modu inozo batean*”, dio egileak), azkenean, LAB ere sindikatu gisa eratu zen. Ia ziurtasun osoz, diosku egileak, horrela ezean langile gehiengo handiekin harremanik izateko gai izango ez zen langile talde erradikalizatu gisa amaituko zen (64 or.). Sindikatuaren izaeraren eta ihardueraren inguruko eztabaida sakonak eman ziren urte horietan. Espainiar Erreforma Politikoaren aurrean ezker abertzalean zegoen ezadostasun larria sindikatuan ere isla izan zuen, ezker abertzalearen inguruan zebilen gai-nontzeko gizarte mugimendu eta masa-erakundeetan bezala.

Orrialde hauetan baieztatzen den bezala, 1975ean, LAB ezagutzera eman zenean, zegoen egoera soziopolitiko eta ekonomikoa izugarri interesgarria zen edozein ikuspuntutik, dena erabakitzeke baitzegoen eta inork ez baitzekien nola burutuko zen prozesu konplexu hori. Ezker abertzalearen baitan eztabaida ideologiko sakonean bazegoen ere, urte horietan aldarrikapen demokratiko-nazionalak izugarri areagotu eta erabat baldintzatu zuen Erreforma politiko espainiarra euskal lurraldeetan.

Hirugarren atalean, “**LAB I. eta II. Biltzarren artean (1978-1980)**”, barne eztabaida da protagonista nagusia, ezker abertzalean Erreforma Espainiarraren aurrean zeuden jarrera politiko ezberdinen isla. Koordinakunde Abertzale Sozialistan sartzean ala ez, hor zegoen gakoa. Arazo honen inguruko eztabaida, funtsean, ETAm-k eta ETApM-k izandako jarrera ezberdinetan laburbiltzen zen.

I. Biltzarrean aukeratutako Idazkaritza Nagusian ElAren jarrera nagusitu egin zen eta LABek KAS utzi zuen. Horretaz gain, hasierako izaera ezaugarriari eusten zien sindikatuak, hau da, erakunde politikoa izateari, gizarte borroka nazio askapenaren ikuspegitik bideratzeari eta ekintza bateratuaren aldeko apustuari.

Moncloako Itunek, lan araudi berriak zein Espainiar Konstituzioaren inguruko eztabaidak egundoko eragina izan zuten langile mugimenduan. 1978an I. Biltzarrak eta Espainiako Konstituzioaren aurkako kanpainak markatu bazuten LABen iharduera, 1979an bi gertaera politiko izan ziren sindikatuaren baitan bizi zen egoera zailaren erakusleak, espainiar hauteskunde orokorraren garapena eta Gernikako Autonomia Estatutuaren erreferenduma, hain zuzen ere.

Sindikatuan zeuden bi jarrera bateraezin horiek talka egin zuten behin-betiko 1980an egin zuten II. Biltzarrean. LABen II. Biltzarra Leioan bildu zen. EEren jarreraren aldeko sektorea, LAB ELAn sartzearen aldekoa, aldiz, Donostian elkartu zen. Azkenean, LAB KASen integratu egin zen.

Laugarren atalean, **Krisi ekonomikoa eta langile-erresistentzia (1981-1986)**, krisi ekonomikoko gogorrean industriaren birmoldaketa eta horren aurrean LABek hartutako erresistentzia-jarrera sendoa dira protagonistak.

Krisi ekonomikoa ahaztu gabe, LABek etengabe salatu zuen Hego Euskal Herriak pairatzen zuen "zigor politikoa", Euskalduna eta AHVren auzietan bereziki. Duela bi urte AHVren inguruan aurkeztutako tesi batek demostratu egin zuen bere garaian LABek salatutakoa, hau da, labe garaiak irizpide politikoek itxiarazi zituztela<sup>1</sup>.

80ko hamarkadaren erdialdean lan harremanak fase berri batean sartu ziren, 90eko hamarkadan garatzen jarraitu zuen lan merkatuaren malgutze prozesua sendotuz. Ondorioz, langileengan emandako aldaketa soziologikoa azpimarratzen du egileak: desegituraketa soziologikoa, desmobilazioa eta desengainuaren errealitatea.

Hamarkada luze horretan bi sindikalismo mota zeuden: kudeaketako sindikalismoa eta borrokako sindikalismoa, duela hogeit hamar urte baino lehenago trantsizio politikoa- ren inguruan sortu ziren estrategia politiko ezberdinen ondorio zuzena. LABek, sindikatu borrokatzaileak, ez zuen inoiz birmoldaketa-planik onartu eta kalea etengabe lantzen zuen sistemaren aurka jotzeko. Erreferentzialtasuna eta sinesgarritasuna irabazi zituen hamarkada gogor horretan egindako lanari esker. Euskal Herriaren egoera politikoari zegokionez, gainera, bat egiten zuen ezker abertzalearen azterketarekin: zatiketa instituzionala, EAEko Gobernuaren ezintasuna, energia nuklearra, euskararen egoera, errepresioa, espainiar Gobernuak negoziatutako zuen borondatea, eta abar. Alde hau, esan bezala, ez da landu liburu honetan.

Bosgarren atalean, **LAB (1987-1991)**, II. eta III. Biltzarraren arteko urteak aztertzen ditu. Krisi bukaezina pairatzen jarraitu zuen oinarritzko industriak. Enplegu Sustapenerako Fondoaren aurkako borroka izan zen, edozein kasutan, garaiko borroken ardatza. CCOO, UGT eta ELAren arteko ekintza batasunak (liburuan ia agertzen ez dena) markatu zituen urte horiek, non krisi-espeditenteak etengabe agertzen ziren.

LABi dagokionez, ezagutu sendotze prozesua da azpimarratzekoa, finkapen eta hedapen sindikala gauzatu joan baitziren arazoan gainera. Urte horietan bultzatutako berregituraketaren bidez, sindikatuaren zuzendaritzak ahalegindu egin zen errealitate sozial eta laboralarekin harreman estuan egoteko.

Seigarren atalak, **LAB (1992-2000)**, azken hamarkadari egiten dio errepasoa. Bigarren industri birmoldaketan sartuta, 1992ko martxoan izandako III. Biltzarrarekin

---

1. BARRUTIA ETXEBARRIA, X., "Altos Hornos de Vizcaya-ren berregituraketa", in *Uztaro*, 32 zbk., 2000, 3-16 orr.

hasi eta 2000ko apirilean egindako V. Biltzarrarekin amaitzen du. LABek, orduan, 25 urteko ibilbidea bete berria zituen.

Barne kohesiori dagokionez, ahulago agertzen zaizkigu liburuaren azken atalak, non sarritan egilearen planteamenduak edota baieztapenak protagonisten azalpenekin nahasten diren. Gertaeren kronika baino ez daukagu atal honetan. Azken hamar urte hauek, beraz, elaborazio lan handiagoa eskatzen dute, dudarik ez.

ELA eta LABen arteko harremanak dira, hala ere, liburuko atal luzeenaren ardatz nagusia. Aldaketa esanguratsuak eman ziren bi sindikatu horietan. Horrela, LABek 80 urte gogor horietan eramandako aurrez aurreko borroka utzi bazuen, ELAk kudeaketa sindikatu hutsa izateari muzin egin eta LABen eskutik “erradikalizatzuz” joan da. Gainera, sindikatu abertzaleen hazkundera, Estatu espainiarraren zentralismoa, marko estatutarioaren baliogabetzea, UGT eta CCOOren jarrera baztertzaila, hauen ahulezia eta menpekotasun ekonomikoa dira, besteak beste, aintzat hartzeko faktoreak.

Aldaketa horien ondorioz bi bloque berri eratu ziren Hego Euskal Herrian. Batetik, CCOO eta UGT, sisteman magalduki eta espainiar Gobernuaren zein Gobernu autonomikoen politika ekonomiko eskuindarrekin etengabeko itunak sinatzen. Bestetik, euskal sindikalismo abertzalea. Azken honek gizarte soldataren alde, aparteko lanorduen edota ABLEen aurka egindako borrokagatik, gero eta erreferentzialtasun handiagoa lortu zuen euskal sindikalismoan, hamarkada horretako hiru hauteskunde sindikaletan ikusi dugun bezala.

Euskal sindikalismo abertzaleak 1994an lortu zuen ekintza batasunak, gainera, beste auzi bat azalarazi zuen: Lan Harremanetarako Euskal Esparrua eta Euskal Esparru Sozio-Ekonomikoa (ELAk eta LABek adostutako bi apustu estrategikoak) versus Lan Harremanetarako Espainiar Esparrua. Eta auzi horrek beste bat islatzen zuen, hau da, Estatuko marko politiko-konstituzionala versus euskal marko politiko-juridiko berria. Koordenada horietan ulertzen da azken urte hauetan sindikatu estatutalen eta espainiar Gobernuaren bat etortzea. Etengabeko Lanbide Heziketa dela eta FORCEM estatutala eta EAEko Hobetuz-en arteko gatazkan ikusten dugu nola, funtsean, Gobernu zentralak nahi duena da diru banaketarako monopolioa Estatuaren integrazio nazionalaren onurako.


Lizarra Garaziko Hitzarmena eta ETAREN suetenaldia izan ziren, hala ere, euskal gizarte eta politika irauli zituztenak. Suetenaldia amaituta ere, gehiengo sindikalak konpromezua hartu zuen marko juridiko-politiko berrirako oinarriak lantzeko. “ELA, LAB, ELB, EHNE, ESK, STEE-EILAS eta Hiruk sinatutako “Prozesua finkatu, bere oinarri sozial hedatu” agirian hitza eman zuten hasitako bideari eusteko. Bertan behera geratu zen ordea. LABek etengabe aldarrikatu du erakunde sindikalen arduraren prozesu horretan eta baldintzarik gabekoa izateko beharra. Orain dela gutxi adierazi duen bezala: “[...] la construcción de un escenario de paz y estabilidad democrática pasa por la defensa, sin escalas ni prevalencias, de todos los derechos individuales y colectivos del conjunto de la ciudadanía de Euskal Herria. Ese es el punto de convergencia entre todas las opciones políticas, sindicales y sociales y la base para el desarrollo de una sociedad democrática y respetuosa con todos los derechos humanos. Ese es el cimiento de un futuro en paz”<sup>2</sup>.

---

2. DIEZ USABIAGA, Rafa, *Violencia, paz. Olvidos y fundamentos*, in *Gara*, 2001eko abenduaren 23an, 8 or.

Liburua, eta horrekin batera 90eko hamarkada, LABen V. Biltzarrekin amaitzen da. Azken hamar urte hauetan ordezkaritza zein afiliazioaren gorakada nabarmena izan da oso. Gainera, hazkunde hori Euskal Herriko herrialde eta lan munduko sektore guztietan gertatu da. Ipar Euskal Herrian ere bai, non kide ofizialik ez izatetik 190 lortzera pasatu den<sup>3</sup>. Beraz, liburu honetan Euskal Herria aipatzen denean, Hego Euskal Herriaren egoera soziopolitiko eta ekonomikoa aztertzen da. Garrantzi handiko urratsa izan da LAB sindikatu nazional bihurtzeko prozesua, horren inguruko aipamenik liburuan egiten ez bada ere. Mende berriko euskal sindikalgintza ikertzerakoan ahalegina bikoitza egin beharko dugu historialariok aurreratzean, espainiar Estatuaren eremua ez baita jada nahikorik izango.

*Patxi Lopez Abasolo*



**MURO ARRIET, Koro**

**Ángel de Apraiz. Biografía y bibliografía**

Vitoria-Gasteiz : Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz, 2001. - 99 p. : il. ; 24 cm. - ISBN 84-95577-04-6.

Ángel de Apraiz, una de las personalidades claves para el desarrollo cultural vasco de la primera mitad del siglo XX, necesitaba un estudio crítico que analizara su obra y su aportación a las instituciones culturales del país. Dejando a un lado algunos acercamientos puntuales a su figura realizados por J. Aralar, F. Arocena, o A. Gómez, y las acertadas consideraciones apuntadas en los estudios de I. Estornés, esta monografía realizada por Koro Muro Arriet constituye la primera obra que ofrece una visión general del primer secretario de Eusko Ikaskuntza. El libro, realizado mediante una beca concedida por el Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz, tiene una finalidad divulgativa, aunque constituye una sólida base sobre la que plantear posteriores investigaciones en torno a nuestro autor o su familia.

Prologa el libro Iñaki Bazán, Presidente de la Sección de Historia-Geografía de la Sociedad de Estudios Vascos, quien recalca la trascendencia de Ángel de Apraiz para el mundo de la ciencia, educación y cultura universitaria vascas, habida cuenta del lento desarrollo que estas parcelas habían conocido durante los siglos modernos y la primera centuria de la contemporaneidad. En efecto, Ángel de Apraiz es una de las columnas fundamentales en las que se asienta el edificio del saber vasco. Su vocación intelectual y labor ha de encuadrarse en la construcción cultural vasca de entre-

---

3. Gara, 2001eko abenduaren 23an, 22 or.